

Mutualiaren PREBENTZIOZKO BEGIRADAK XXII. Lehiaketa 2025

 **Prebentziozko
Begiradak**

Mutualiako Prebentzio Aholkularitzak PREBENTZIOZKO BEGIRADAK LEHIAKETAren XXII. edizioa jarri du abian. Lehiaketak **argazkirik onena**, **adimen artifizial (AA) bidez sortutako irudirik onena** eta **bideo laburrik onena** sarituko ditu, betiere erakargarritasun artistikoaren bidez prebentzioaren gaur egungo egoera islatzen badute, laneko segurtasunaren eta osasunaren problematikaren gainean gizartea kontzientziatzen eta sentibilizatzen laguntzen badute, laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak prebenitzeko mezuak zabaltzen badituzte eta enpresa osasungarria sustatzen badute jardunbide egokiak positiboki baloratuz.

Diru-kopuru hauek banatuko dira **saritan**:

- | | |
|--|---------|
| • Argazki onenaren saria: | 1.200 € |
| • AA bidez sortutako irudi onenaren saria: | 600 € |
| • Bideo labur onenaren saria: | 1.200 € |

Aurkezten diren **materialek** jatorrizkoak eta eskusiboki parte-hartzailearenak izan behar dute. Ezingo dute lehiaketan parte hartu aldez aurretik argitaratu direnek edo lehiaketaren batean saria jaso dutenek. Materialak estatuko errealitatera mugatuko dira.

Argazkiak:

- Ez da onartuko digitalki eraldatutako argazkirik (salbuespen gisa, onartzen dira esposizio-, kontraste- eta argiztapen-doiketa arinak eta zuri-balantzeen doiketa arinak). Ez da onartzen obraren jatorrizko konposizioa aldatzen duten elementuak gehitzea edo ezabatzea. Gomendatzen da jatorrizko fitxategiak gordetzea, zalantza bat sortuz gero, ebatzi ahal izateko.
- Koloretakoak edo zuri-beltzekoak izan daitezke.
- .JPG formatu digitalean bidali behar dira.
- 6 megapixeiko bereizmena izan behar dute gutxienez.
- .JPG fitxategiak ez ditu izan behar 10 MB baino gehiago.

AA bidez sortutako irudiak:

- Estilo errealista izan beharko dute.
- .JPG formatu digitalean bidali behar dira.
- 3 megapixeiko bereizmena izan behar dute gutxienez.
- .JPG fitxategiak ez ditu izan behar 10 MB baino gehiago.

Bideo laburrak:

- Edozein teknika erabili ahal izango da (animazioa, grabazioa, adimen artifiziala...). AA erabiltzen bada, erregistro-formularioan adierazi beharko da.
- Edukia fikziozkoa edo dokumentala izan ahalko da, eta genero guztiak onartuko dira (komedia, drama, zientzia-fikzioa, etab.). Jatorrizko ideiak eta lehendik dauden proiektu eta bideoetan oinarritutakoak aurkeztu daitezke.
- Gehieneko iraupena 20 segundo da.
- Edozein formatutan bidali daitezke, bertikalean nahiz horizontalean.
- Gutxienezko kalitatea: HD.
- Hizkuntza: euskara eta gaztelania. Bi hizkuntzetako azpigituluak baloratuko dira.

Argazkiak eta irudiak behar bezala identifikatuta (ABIZENA_IZENA_IZENBURUA) bidali behar dira **prebentziozkobegiradak@mutualia.eus** helbidera, eta material bakoitzeko erregistro-formulario bat bete behar da. Mutualiaren webgunean aurkituko duzu formulario hori (www.mutualia.eus). Bideoak, behar bezala identifikatuta (ABIZENA_IZENA_TITULUA), Wetransfer plataformaren bidez bidaliko dira **prebentziobideoak@mutualia.eus** helbidera, eta bideo bakoitzeko erregistro-formulario bat bete beharko da.

Aurkezteko epea 2025eko otsailaren 15ean bukatuko da.

Epaimahaiaren erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da, eta www.mutualia.eus webgunean eta sare sozialetan argitaratuko da 2025eko martxoaren 25ean, **Mutualia Sariak X.** edizioaren banaketa-ekitaldian, **MUTUALIAren 125. urteurrenarekin** bat eginez.

Animatu parte hartzera!

Irakur ditzakezu lehiaketaren oinarriak osorik:

www.mutualia.eus